

«Euskararen alde lan asko egin da, baina hitanoaren alde ez, eta egun prestigio gutxi du»

JOSU OZAITA

ANTROPOLOGOA

Tolosaldean egindako ikerketa baten bidez, gazteen artean hitanoaren egoera zein den aztertu du Josu Ozaita antropologoak (Ibarra, 1980).

Julene Larrañaga

Hitanoak gaur egun bizi duen errealitatea Tolosaldeko gazteen prismatik ikertu du Josu Ozaita Ibarra antropologoak. 18 eta 28 urte arteko eskualdeko gazteekin elkartu eta hitanoari buruz duten ikuspegia bildu du, “Hurbilpen bat: Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara” izeneko azterketan. Ikerketak hainbat ondorio ateratzeko balio izan dio. Bere iritziz, azken hamarkadotan euskararen alde «lan handia» egin da, eta «izugarritzko bultzada» izan du, baina ez da gauza bera gertatu hitanoarekin. Garrantzirik ez zaiola eman eta ez dela bultzatu uste du. Eta ez hori bakarrik: zenbait kasutan «baztertua» izan dela dio. Horren erakusle da, bere esanetan, hitanoaren inguruko ikerketarik ez egotea edo eskualdean hitanoaren erabilera zenbatekoa den ez jakitea. Horrek guztiak hitanoaren prestigioan zeresana du, Ozaitaren ustez. Hala ere, hizkuntzaren adierazkortasuna bultzatu eta euskararen erabilera handitzeko baliabide proposa delakoan da, «euskarari eskua sartu diogu toki guztietatik, bada hitanoaren berreskurapenean ere berdina egin beharko litzateke», dio.

Zerk bultzatu zaitu hitanoari buruzko ikerketa bat egitera? Hainbat arrazoi izan ditut. Euskararen adituen argudioen baitan gauza asko irakurri eta entzun izan ditut hitanoari buruz: sekulako potentzialtasuna duela, gazte hizkerari pertsonalitatea ematen diola... Baina ideia horiek ez zirela garatzen iruditzen zitzaidan, batetik. Eta, bestetik, deigarria egiten zitzaidan errealitate bat ere bazegoen: nahiz eta euskara gure eguneroko hizkuntza izan, tarteka, lagun konkretu batzuekin, gaztelerara jotzen genuela, inkontzienteki, informaltasun eta freskotasun bila. Denbora tarte bat igarota, ohartu nintzen gazteleraren espazio hori hitanoak okupatu zuela. Baina guri ez digute hitanoa eskolan irakatsi, ez da ikasi

dugun zerbait. Gero, ordea, kalean entzutean, erakargarri bihurtzen da. Hori zergatik gertatzen den jakin nahi nuen.

Zergatik Tolosaldean, eta zergatik gazteen artean? Gazteek hitanoa gaizki erabiltzen dutela esaten da askotan, baina beraien iritzia eta egoera ez da kontuan hartu orain arte. Nik beraien ikuspegia jaso nahi nuen. Tolosaldean egin dut ikerketa, nire bizitokia delako eta, ikerketaren baldintzak kontuan izanda, egokiena zelako. Hamabi gazterekin egin ditut elkarrizketak. Generoa baloratuz, herri txiki eta handiak bereiziz eta adin tarteak kontuan izanda hautatu dut lagina.

Lagin hori nahiko txikia da. Azterketa zabalagoa eginda emaitza aldatuko litzateke? Ziurrenik bai. Gerturapen bat izan da nirea, etorkizunean egin daitekeen ikerketa sakonago ba-

ten abiapuntua. Diskurtso eta erabilpen anitzak bildu eta mahai gainean jartzeko balio izan duela uste dut. Hala ere, beharra dago ikerketa handiago bat egiteko, baita Tolosaldean ere. Eta Tolosaldetik kanpo, are gehiago. Izan ere, Euskal Herrian errealitate anitzak bizi ditu hitanoak. Politika eta beharrezkoa litzateke lurralde guztiko errealitate ezberdinak bildu eta aztertzea. Hala ere, zaila da honen inguruko informazioa lortzea, ez baitago. Ikerketa batzuk egin izan dira, baina hizkuntzalaritzaren esparrutik, batez ere. Antropologiaren bitartez ikertu nahi nuen nik hitanoa.

Hitanoa gutxietsia izan dela da ikerketaren ondorioetako bat. Hori uste duzu? Bai. Euskararen inguruan diru asko inbertitu da azkenaldian, baina ez zait iruditzen hitanoa bultzatzen denik. Azken urteotan batuaren ezagutza eta he-

dapenean egin da lanketa berezia euskalgintzako alor ezberdinetatik. Beharrezko lana izan da, noski. Baina bada garaia alboratuta geratu diren beste elementu batzuk hartu eta beren balio eta indarraren inguruan hausnartzeko. Hezkuntzan oso gutxi landu da hitanoa eta metodologია oso zaharkituekin, euskalgintzako eragileek ez dute erabiltzenerako apustu bezala ikusi, instituzioetatik ez da inbertsio ekonomikorik egin, zenbait euskal hiztunen partetik alboratua ere izan da... Horregatik diot hitanoa gutxietsia izan dela. Eman zaion garrantzia gutxiarekin iraute hutsa harrigarria da, eta hori indar berezi bat duelako da.

Zein presentzia du hitanoak gaur egun? Bere erabilera ugartu edo murriztu egin da azken urteotan? Ezin daiteke zehatz jakin. Guk ez dakigu zehazki non erabiltzen den, ehuneko zenbatek egiten duen... Neurtzen ez bada, estatistiketan azaltzen ez bada, desgertzen ari den pertzepzioa du jendeak. Baina Tolosaldean, adibidez, uste baino indar handiago du. Nahiz eta ez den bultzatzen, esan daiteke hitanoak presentzia nahiko handia duela gure eskualdean. Indarra badu ere, gazteek oso eremu zehatzetan soilik erabiltzen dute.

Garai batean espazio informatan erabiltzen zen hitanoa. Zein da bere erabilera esparrua gaur egun? Hitanoaren espazioa horixe da orain ere: informala eta oso gertukoa. Lagunarteko testuingururako eta egoera informaletarako hizkera egokia da. Erregistro informala izaki, kalea eta gertutasun testuinguruak dira bere espazioak. Adibidez, taberna batean bazaude futbolaz hitz egiten, hitanoaren diskurtsoak adierazkortasun handiago hartzen du, diskurtsoari indar berezi bat ematen dio, batuari lekua irabaziz. Batua ez delako hain adierazkorra, hotzagoa delako. Gazteek beraiek ere hori ikusten dute eta horrek hitanoa mantentzen jarraitzean zerikusia handia duela esango nuke.

Hortik kanpo, zein espazio hartzen ditu? Komunikabideetan, adibidez, zer toki dauka? Telebistan, adibidez, Goenkalen entzun zitekeen dezente, bere eremua den distantzia laburreko egoeratan: tabernan, lagunartean, guraso eta alaba-seme harremanetan... Bestetik, marrazki bizidunetan ere bai, baina lehen gehiago erabiltzen zela uste dut. Pilota partidetan ere, Xabier Euskitze eta Joxean Tolosak ia-ia beraiekin etxeko sofan tertulian egotea lortzen dute hitanoaren bidez. Paper garrantzitsua jokatzen du telebistak alor honetan. Interesgarria litzateke, gazteen ikuspegitik batez ere, “Gu ta gutarrak” bezalako programetan hitanoa lantzea. Irratian, adibidez, oso gutxi entzuten da, eta horretarako eremu proposa da, ahozko komunikabidea izaki. Birkaina litzateke Gaztean euskal talde bati elkarrizketa hitanoz egitea, adibidez.

Bi aldagai nagusi aipatzen dituzu erabilera aztertzean: generoa eta herri txiki eta handien arteko aldea. Tolosa bezalako herrietan ez da egon transmisiorik, gaur egun guraso diren horiek duela 30 urte errealitate erdalduna bizi zutelako. Tolosako gazteen artean hitanoa erabiltzen bada, herri txikietako gazteak batxilergoa egitera bertara joatearen ondorio da, edo herri txikietatik Tolosara joandako gurasoak izatearena, edota familiarteko baserrira joateko ohitura izatearena. Hala ere, gazteek ez dute ondo ezagutzen hitanoa: “zenbat dek?”, “ze esatek?” eta antzeko forma errazetatik aterata nahiko galduta aurkitzen dira. Baina, hala eta guztiz ere, zenbaitek hitanoa erabiltzen dute oso itsaskorra delako eta funtzio bat topatzen diotelako. Ziurrenik Donostian baino presentzia handixeagoa izango du Tolosan, baina aldea ez da hainbestekoa Azpeitiarekin, Zarautzekin edo antzeko herriekin konparatuta. Aldiz, Tolosaldean bertan bai ematen dira aldeak, herri txiki asko dagoelako. Batez ere herri txikietako mutilek bere egin dute, hitanoaren transmisio naturala jaso du-



Argazkiak: Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

«Euskal Herrian
errealitate anitzak
bizi ditu hitanoak.
Polita eta
beharrezkoa
litzateke lurralde
guztiko errealitate
ezberdinak bildu eta
aztertzea»

«Konnotazio
negatiboa eman
izan zaio hikari oro
har, baina askoz
modu ageriagoan
nokari, bekatu eta
sorginkeriarekin
identifikatu izan
delako»

rrela bada, konnotazio negati-
boa eman izan zaio hikari oro
har, baina askoz modu ageriago-
an nokari, sorginkeriarekin eta
bekatuarekin identifikatu izan
delako. Egun oraindik zentzu ne-
gatibo hori mantentzen du sarri,
zerbait zakarra, baldarra edo
itsusia balitz bezala. Eta, badaki-
zu, neskak fina behar omen du...

**Nesken kasuan beste ondorio
deigarriren bat ere atera duzu.**
Bai. Fenomeno berezi batekin
konturatu naiz. Berastegi eta Be-
rrobi inguruan neska batzuek
hitanoa erabiltzen dute beren
artean, baina toka, mutilen for-
man. Berdintasunarekin lotuta
legoke hori. Gaur egun gizartea
berdinzalegoa denez, ez dute be-
harrik ikusten neska eta mutilen
formak bereizteko. Helduagoek
agian hori astakeria bezala iku-
siko dute, baina badirudi gazte-
ek ez diotela bereizketa horri
horrenbesteko garrantzirik ema-
ten. Hori bai, martxa honetan,
genero bereizketa gal lezake hi-
tanoak, eta, “kasualitatez”, orain
ere, emakumeen osagai bat li-
tzateke kaltetua...

**Beste hizkuntza forma ba-
tzuen alboan hitanoaren egoe-
ra ez da hain larria; berorike-
tarekin konparatuz, adibidez.**
Bai. Jartzen badituzu hitanoa eta
beroriketa elkarren ondoan, ikus
daiteke nola beroriketa desager-
tu egin den, ez zuelako betetzen
bere funtzioa eta ez zuelako gi-
zartearen atxikimendua. Duela
ez asko arte, hierarkia eta esta-
tus mailak islatzen ziren euska-
raren erabilpenarekin etengabe,
berorika formaren eta hitanoa-
ren baitako arauak medio. Gaur
egun, aldiz, berdintasun handia-
goko euskara darabilgu, hizkun-
tzaren bidez mailaketarik egiten
ez duena. Belaunaldi berriek ez
dakite berorika existitu izan de-
nik ere. Dena den, ez dit batere
penarik ematen berorika desa-
gertu izanak. Hizkuntza aberas-
tasunak galdu du, baina berdin-
tasunak irabazi.

**Hitanoaren barne arau horiek
aldatzen doazela diozu.**
Bai, hitanoaren barruan zeuden
arauak apurtzen ari dira. Ez soi-

”

telako askok, etxetik bertatik ka-
su askotan. Bereizketa horiek
eragiten dute zenbait gaztek hi-
tanoa urruneko ikustea, eta, al-
diz, beste batzuek beraien iden-
titatearen parte sentitzea.

**Mutilak aipatu dituzu. Zerga-
tik da urriagoa nesken artean?**

Mutilen kasuan soilik eman da
hitanoaren transmisioa. Nesken
transmisioa moztu egin da. No-
ka [nesken forma] gutxi entzu-
ten da. Are gehiago: noka galbi-
dean dagoela uste dut, bere
erabilpen urriagatik eta trans-
misio ezagatik. Emakume heldu
edota ahizpa helduen artean

erabiltzen da, baina ia-ia intimi-
tatean, esango nuke. Aita-seme-
en kasuan ez bezala, gurasoen
aldetik ez da egon hitanoaren
transmisiorik alabekiko. Baina
ez da beti horrela izan, historia
bera da horren lekuko. Begoña
Etxebarria antropologoaren
ikerketak batean kontatzen de-

nez, 1571n, protestanteen ideiak
zabaltzeko noka forma normal-
tasunez erabiltzen zen emaku-
meengana zuzentzerakoan. On-
dorengo testu katolikoetan “zu”
forma ageri da oro har; hitanoa,
aldiz, zigortzeko edo errieta egi-
teko, mespretxua edo destaina
adierazteko erabiltzen zen. Ho-

lik generoaren aldetik, mailaketa sozialaren arloan ere bai. Garai batean gurasoei, apaizari edo prestigiozko kargudunei hika egitea edukazio txarrekoa zen, eta hori gaur egun aldatu egin da. Akaso gazteek ez dute mailaketa sozial hori hizkuntzan erreproduzitu nahi. Berdintasunerako joera handiagoa ikusten dut gizartean maila horretan.

Esan daiteke hitanoaren baitako aldaketak gizartearen isla direla, neurri batean?

Bai. Gizartea aldatzen den moduan aldatzen dira hizkuntzak ere, biziak eta aldakorrak baitira. Gazteek ez diete zentzurik topatzen arau hauei, eta beren erabilpenaren bidez paradigma aldaketa gauzatzeko subjektu aktiboak dira. Tolosa bezalako herrietako gazteek ez dute arauon transmisiorik jaso eta beren aitengana hitanoz zuzentzen dira; herri txikietakoek, aldiz, arauon transmisioa jaso dute, eta, ondorioz, aurka badaude ere, arauok errespetatu gabeko erabilpena neurtuagoa da. Nire kasuan, txikitan aitag ez zidan uzten hikaz berarengana zuzentzen, baina egun eguneroko forma normalizatua da. Berastegiko apaizak uzten die gazteei hitanoz zuzentzen, duela urte batzuk zaplazteko baterako arrazoi zena. Azken batean, belaunaldi heldu eta gazteen arteko borroka ezkutu bat dago hemen, helduen arauen eta gazteen ikuspegiaren artekoa. Gazteak pixkanaka terrena irabazten ari dira, eta helduak onartzen ari dira errealitate berri hori.

Gaur egun hitanoa erakargarri dela esango zenuke? Ikusten diozu xarma berezi bat? Gazteek zer diote?

Hitanoak badu indar berezi bat, erakargarritasun bat. Tolosako gazte batek esan zidan moduan, hasieran arrotza egiten zitzaion, baina belarria ohitu, pixkanaka probatzen hasi eta gustua hartu zion azkenean, itsaskorra baita hitanoa. Horregatik irau du, baduelako erakargarritasun bat, eta ez lanketa berezia egin delako berau mantentzeko. Hala ere, konturatu naiz landa guneetan



edo herri txikietan batzuek lotsa pixka bat sentitzen dutela. Beste batzuek, aldiz, harrotasunez erakusten dute, beren identitate ikur gisa.

Prestigioa galdu al du?

Garai batean baserritarrak ere prestigio gutxiko pertsonak ziren, ezjakin etiketa zuten, nahiz eta oso aberatsak izan jakintza aldetik hainbat alorretan. Herri txikietako jendea gutxietsia zen bezala, prestigio gutxi zuen hauen hizkerak ere. Gaur egun, autoestimua handiagoa dago, eta herri txikietako gazte askok harrotasunez daramate beren identitatearen parte bezala. Bestalde, hitanoa urbanizatu ere egin da neurri batean. Agian instituzio, hezkuntza eta euskalgintzako eragileek gutxiesten dute, baina, kontrapuntu bezala, jende askok maite duela ere ohartu naiz. Eta egin dudana ikerketa txiki honek interes handia piztu du komunikabideetan. Seinale ona da hori.

Hitanoak ez du presentziarik hezkuntza arautuan: ez da eskoletan irakatsi, kalean edo etxean jaso eta belaunaldiz belaunaldi transmititu izan da, ezta?

Bai, eta transmisioa zuzena jaso ez duenak ez du ikasteko aukerarik izan. Nik gogoan dut duela hogeita piko urte landu genuela

ikastolan, taula bidez eta egun bakar batean, pentsa! Eskolan aditz taularen bitartez izaten dute askok hitanoarekin lehen kontaktua, eta horrek kontrako erreakzioa eragiten du ezinbestean. Gaurko gazteek ere antzeko esperientziak kontatu dizkirate. Hezkuntzak ere hitanoaren erabileran zeregina duela uste dut, eta hausnarketa egin behar ko litzateke autokritikatik bide berriak irekitzeko. Taula bidezko metodologia ez da batere aproposa hitanoa lantzeko. Bestelako bideak probatu beharko lirake.

Nola bultza daiteke hitanoa gaur egun?

Lehenik eta behin, hitanoak ikerketa sakona behar du, errealitatera gerturatzeko. Hortik abiatu beharko genuke. Ikerketa sakon bat egin behar da, eta horren arabera planteatu nolako berreskurapena egin behar den eta zein ekintza lerro ireki behar diren. Adibidez, aisialdia eta jolas oso eremu egokiak izan daitezke. Haur eta gaztetxoek ondo pasatzearekin lotzen badute eta funtzio bat bilatzen badiote, bikain. Nire lagun batek dioen bezala, zertarako balio du euskararen inguruan hainbeste lan egiteak, zertarako balio dute hainbeste euskara planek, gero gure alaba-seeek surfa praktikatzeko edo zaldian ibiltzeko ikastaroak gaztekeraz egiten ba-

dituzte, euskarazko eskaintzarik ez dagoelako? Hor jarri behar da arreta erabilpena bultzatzeko. Bestetik, hezkuntza araututik bertatik ere hitanoa landu daiteke, baina hobe jolas moduan. Adibidez, antzerkiak eginez hitanoa erabiliz, soinketa klaseetan... Teoria ere bai, baina bestelako metodologiaren bitartez, ez aditz taula hutsekin. Azpeitian, esate baterako, lanketa berezi bat egiten ari dira ume eta gazteekin hitanoa lantzeko, euskarri desberdinak erabiliz, eta ikasketak dinamikoagoa bihurtuz: ordenagailu bidezko jolasak, marrazki bizidunak...

Gaur egun, eta hala nahi duenak, badu hitanoa ikasteko aukerarik? Tolosan bertan bada ekimenen bat, ezta?

Bai, ikasturte honetan jarri da martxan Hitanolagunak izeneko inizatiba. Ekimen positiboa da, noski, baina ez du hitanoa salbatuko, eta erabilpenean ere ez du askorik eragingo, tamalez. Elementu bat izan daiteke, gehigarri bat, baina plangintza osoago baten barnean, ez partxe moduan. Gainera, horrelako jardueretan parte hartzen dutenen profila, orokorrean, denbora librearen duen jende helduarena izaten da, erretiratuak batez ere. Gazteak falta dira, ordea. Eta gaur egun gazteek nahikoa zeregin daukate, eta lehenago has-

ten dira ingelesa, frantsesa edo alemana ikasten. Horrek ez du esan nahi ez litzaiekeenik gustatuko hitanoa ondo jakitea, noski, baina bestelako eremu batzuetan landu behar da kontua.

Nola erakar daitezke gazteak hitanoa erabiltzera?

Esan bezala, hitanoa sakonki ikertu ostean, plan bat beharko lukeela pentsatzen dut, gazteek ere parte hartu beharko luketelarik bere diseinuan. Hitanoa erakargarri izan daiteke, baina estrategian asmatzean datza gako. Hitanoaren etorkizuna ez dator euskararen aberastasuna gordetzeko gazteek ikasiko dutelako, baizik eta funtzionaltasunaren bidetik. Hitanora gazte berriak gehitu badira berarekin bilatzen duten funtzio ezberdin-
duagatik da, hots, egoera informetarako aurkitzen dioten baliagarritasunagatik: besteak beste, adierazkortasuna, gertutasuna, lagunarteko egoera, informaltasuna, hizkera freskoa... Gaztekeraz “*¡qué pasa tú! ¿qué dices?*” litzatekeena, zukaz “*kai-xo, zer kontatzen duzu?*” litzateke. Hitanoz, berriaz, “*aupa hi! Ze esaten? (edo esatek)?*”. Alde handi xamarra dago, ezta?

Hitanoa berreskuratzeko eta indartzea euskararen erabilera handitzeko bide ona litzateke?

Bai. Azken urteotan euskararen ezagutza goranzko joeran dela baina erabilera geratu egin dela diote ikerketek. Akaso, euskararen erabilera gutxitzen ari dela esaten denean, aurrez aipaturiko adierazkortasun hori falta zaiolako da. Agian hitanoak lagun dezake erabilpena igotzen, neurri batean. Ez da hautatu behar batua ala hitanoa, bata edo bestea, biak osagarri baitira. Azken finean, hitanoa euskarak duen beste tresna bat da, beste erregistro bat, funtzio ezberdin-
dua duena. Zenbat eta hizkera gehiago menperatu, hiltun osoagoak izango gara. Orduan eta tresna gehiago eduki egoera ezberdinetarako, orduan eta hobeto moldatuko gara euskaraz, eta, horrenbestez, gure hizkuntza gehiago erabiliko dugu. Hori da helburua, azken batean.